

# Sarrerak

---

**B**este urte bete joan da eta horrekin batera Lezo aldizkariak beste urrats bat eman du. Urrats emankorra aurreko guztiak bezala, irakurleak ikusiko duenez. Aurten ere aurreko urteetako joerari eutsi diogu eta ale bakarra kaleratzearen aldeko apustua egin. Bakarra, ez ordea, kaskarra.

Ikusi besterik ez duzue nondik norako bidaiak eskaintzen duen ale honek.

Denak banan-bana aipatzeak luze joko liguke eta ez gara horretan hasiko. Dena den, aipamen berezia egin nahi genioke Lander Zurutuzaren historia lanari, entretenigarri izateaz gain jakingarri ere badelako garai bateko Lezoko bizimoduaren gora-beherak ezagutzeko. Horren ondoan ezin aipatu gabe utzi Joxe Juan Ugaldek Lezoko arraunari buruz egindako elkarrizketa eta argazki bilduma. Herri hau itsas herria izan dugu sortu zenetik, eta gaur egun izaera hori ukatzen bazaigu ere guk geureari eutsi behar. Aipamen horien ondoan ezin ahantzi euskal preso politikoek, eta horien artean gure herriko hiru seme bizi dutena eta Senideek salatzen dutena. Autobidearen borroka ez da geldirik egon urte bete honetan eta horren berri ere badugu, eta horien ondoan literatura, toponimia, linguistika....

Ez genuke sarreratxo hau itxi behar aldizkariaren azalari aipamenik egin gabe. Mikel Susperregik egindako azal eder honek gerra aurreko Lezoko Euskal Jai bateko argazkia du. Ederra argazkia. Agur irakurle! Ongi etorri! Berrero ere topo egin dugu aldizkari honen aitzakian. ahazteko modukoa. Urte bete-betea joan da borroka honetan eta Herri Ekimenak horren berri damaigu xehe-xehe. Lau lan aipatu baditugu ere ez utzi gainontzekoak irakurri gabe, edo ahantzi orain irakurritakoa. eta ederra azala.

Besterik ez oraingoz, gustoko izango duzuelakoan hurrengora arte. Ez ahaztu, ordea, aldizkari honen orriak zabalik dituzuela zuen lanak argitaratzeko.

Kitto

Lezo Aldizkariaren Erredakzio Batzordea